

Ebazpena: R062/2023

Espedientea: E25/2018 eta metatuak: E28/2018 eta E34/2019

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFAk) eta Zerga Administraziooko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEAk), elkarren artean eta Nafarroako Lurralde Ogasunaren (aurrerantzean, NLO) aurka, gatazka aurkeztu dute, zeinak helburu baitu INSA zergapekoaren 2013-2017 aldiko BEZa eta sozietateen gaineko zerga ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan ari dira izapidetzen, 25/2018, 28/2018 eta 34/2019 espediente-zenbakiekin.

I. AURREKARIAK

1.- INSA sozietate bat da, eta Gipuzkoan dauka egoitza fiskala; bada, elikagai-produktuak eraldatzen ditu (zehazki, zopak, saldak eta kremak fabrikatzen ditu).

2.- 2013-2017 aldian, 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu zuen, eta GFARI bakarrik ordaindu zizkion BEZa eta sozietateen gaineko zerga.

3.- INSA da AASAUren bazkide bakarra; AASAUk Nafarroan dauka egoitza, eta elikagai-produktuak fabrikatu, ontziratatu, saldu eta banatzen ditu.

4.- 2018ko otsailaren 7an, zergadunak kontsulta bat egin zion GFARI, eragiketarako egiteko tokiari buruzkoa, eraldatzeko, ontziratatzeko, paketatzeko eta entregatzeko azken prozesua Nafarroan (ALAREN instalazioetan) egiten zaien produktuei dagokienez.

- 2018ko otsailaren 27an, GFAk kontsultari erantzun zion, eta adierazi ALAREN instalazioetan eraldatzen, ontziratzen eta paketatzen diren produktuak Nafarroan entregatzen direla.

6.- 2018ko martxoaren 19an, INSAk 2014-2017 aldiko BEZAREN autoliquidazioen zuzenketa aurkeztu zion GFARI, eta zegokien tributazio-proporzioa egotzi zion Nafarroako Foru Komunitateari eta Estatuari.

7.- 2018ko martxoaren 1ean, INSAk tributazio-proporzioa itzultzeko eskatu zion ZAEARI, 2014-2015 ekitaldietako BEZAREN autoliquidazioei zegokiena, baina eskaera ezetsi zioten.

8.- 2018ko martxoaren 18an, INSAk tributazio-proporzioa itzultzeko eskatu zion NLORI, 2014-2017 ekitaldietako BEZAREN autoliquidazioei zegokiena, baina eskaera ezetsi zioten 2018ko apirilaren 18an.

9.- 2018ko ekainaren 26an, GFAk NLORI jakinarazi zion ez zuela eskumenik zergadunaren 2014-2017 aldiko BEZAREN autoliquidazioetatik hari egotz zekioken proporzioa itzultzeko. Jakinarazpen horrek inhibizio-errekerimendu gisa jardun zuen.

10.- 2018ko uztailaren 12an, GFAk inhibizioa eskatu zion ZAEARI, 2014-2015 aldiko BEZaren autolikidazioei zegokienez, baina 2018ko abuztuaren 13an baztertu zioten eskaera.

11.- NLOk ez zuenez erantzun, GFAk eskumen-gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari 2018ko abuztuaren 10ean, eta 25/2018 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

12.- Estatuak uko egin zionez, GFAk, 2018ko irailaren 12an, eskumen-gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, eta 28/2018 espediente-zenbakia esleitu zitzaion hari.

13.- 2018ko abenduaren 17an, ZAEAk zergapekoaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskatu zion GFARI, 2013tik 2017ra arteko BEZari eta sozietateen gaineko zergari zegokienez.

14.- 2019ko apirilaren 10ean, GFAk ezetz erantzun zuen, Arbitraje Batzordeak ebazpena eman behar zuelako oraindik eta, hortaz, jarduketak nahitaez eten behar zirelako.

15.- 2019ko ekainaren 10ean, ZAEAk inhibitzeko errekerimendua egin zion GFARI, eta hark 2019ko uztailaren 9an baztertu zuen.

16.- Ondorioz, ZAEAk gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari 2019ko abuztuaren 2an, eta 34/2019 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

17.- 2021eko azaroaren 26an, gatazkak metatzea erabaki zuen Arbitraje Batzordeak, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Prozedurak metatzea.

Bat etorrita Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikuluekin (1760/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen erregelamendu hori), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikagarria da, eta honako hau xedatzen du: «Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek

eskatu, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

3.- INSAk formulatutako kontsultari erantzuteko eskumena eta garaiz kanpoko autolikidazioen gaineko ondorioak

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (aurrerantzean, EZKO) eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak (aurrerantzean, OFPM) erantzun beharko zioten, ados jarrita, INSAk egindako kontsultari, bat etorrita Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan xedatzen denarekin. Artikulu horren arabera, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak eginkizun hau dauka:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Hala, GFAREN aldekarreko erantzuna ez da baliozkoa, EZKOren eta OFPMren eskumenak inbaditzen dituelako.

Ondorioz, zergapekoak garaiz kanpo aurkeztu zituen autolikidazioak (Estatuari eta NLOri tributazio-proportzioak egotzita) ez ziren bat-batekoak izan, GFaren jarduketa baliogabe batek eragin baitzituen: zuhaitz pozoituaren fruituen teoriak akastu zituen.

4.- Eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatzeko eskumena

Ezin dugunez kontsulta ebatzi Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan jasotzen den prozeduraren arabera, zergadunaren eragiketa-bolumenaren proportzioa legez aldatzeko modu bakarra da ikuskapen-eskumena daukan administrazioak (hau da, GFAk) akta bakarra idaztea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea ez dela egokia zergadunak garaiz kanpoko autolikidazioetan egotzitako zenbatekoak bidaltzea; hala, GFAk zergadunaren eragiketa-bolumenaren proportzioa egiaztatu beharko du, ikuskapen-prozedura erabilita, 2013-2017 aldiko BEZari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Nafarroako Lurralde Ogasunari eta INSARI.